



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HE1
(B2 maila)****PROBA IDATZIA
2020ko ekainaren 8a**

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

OHARRAK

1. Utzi Nortasun Agiria mahai gainean.
2. Egiatzatu azterketa-material guztiak dituzula: galdekizuna, erantzun-orria eta idazlanen orriak.
3. Idatzi zure kodea azalean, erantzun-orrian eta idazlanen orrietan.
4. Ez irten azterketatik arduradunek baimena eman arte.
5. Itzali telefonoa.
6. Entregatu azterketa-material guztiak irten aurretik.
7. Larrialdia gertatuko balitz, egin kasu arduradunen aginduei.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.
- Emaizak Interneten agertuko dira **ekainaren 15ean** :
(www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara).

A eredua

IRAKURMENA

Makulu bionikoa lagun

Adembi Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkarteak exoeskeleto bat erabiltzen du pazienteen errehabilitaziorako, haien ibilera, indarra eta autoestimua hobetzeko. Gailuaren abantailak frogatzeko ikerketa bat bukatu berri dute.

«Eskuina lehenengo. Bagoaz. Bat, bi eta hiru». Eta Mari Karmen Gandiaga markinarra oinez ibiltzen hasi da, Erika Otxoa errehabilitazio-medikua atzean duela. Oinez, baina robot edo androide(11).... , urrats bakoitzean hankek oinez ibiltzeko egin behar dituzten mugimendu guztiak poliki eginez eta errepikatuz. Eta robot edo androide soinuarekin: karranka elektronikoa bat urrats bakoitzeko. *Bip* soinuaren bat ere bai tarteka. Bitartean, aretoko izkina batean ahaztuta geratu da Gandiagak(12).... izan ohi duen bastoia.

Plastikoz, metalez, uhalez eta bizkarrean eraman beharreko kutxa handi batez (aginte- eta kontrol-gailua)(13).... dago exoeskeletoa, gaixoen jantzi egiten duten kanpo-hezurdura bat. Hezurdura artifizial horrek eutsi egiten dio jantzen duenari, eta zutituta eta zuzen ibilarazten(14).... , akatsak edo inertziak zuzenduz.

Gaixotasun neurologikoa da esklerosi anizkoitza. Kronikoa, degeneratiboa eta sendagaitza, zenbait kasutan botikekin gaitzaren(15).... gutxitzea eta garapena moteltzea lortu bada ere. Garunari eta bizkar-muinari(16).... dio. Gorputzaren sistema immuneak eraso egiten dio bertako nerbio-zuntzak biltzen dituen substantziari, mielinari. Ondorioz, eten egiten dira garuneko nerbio-bulkadak. Esklerosi anizkoitzaren ondorioz(17).... bat da ibiltzeko gaitasuna galtzea. Kasurik(18).... , erabat.

Exoeskeletoak gordeta ditu paziente guztien(19).... . 48. soslai da Gandiagarena, eta haren neurri jarri dute: aldaka eta belaun arteko zatia, belaunetik orkatila artekoa, orkatilaren kurbatura... Torlojuak askatu, torlojuak estutu, uhalak lotu. Gandiagak eserita(20).... du exoeskeletoa. Otxoa medikuak hartu du(21).... kontrola eta Gandiaga(22).... egin da, exoeskeletoaren indarraren laguntzarekin. «Soinean armadura bat izango(23).... bezala sentitzen naiz, robot baten barruan joango banintz bezala». Exoeskeletoak 22 kilo pisatzen du; motor elektrikoarekin,(24).... , Gandiagak ez du nabaritzen gainkargarik.

Errehabilitazio-saioa hasi aurretik, Otxoa medikuak zehaztu egin behar du ibiltzean zenbat indar egingo duen Gandiagak eta zenbat lagunduko dion makinak.(25).... , baita hanka bakoitza zenbat altxatuko duen ere. Edota pausoaren luzera. Hanka bakoitzak neurri propioak izan ditzake.

Pazientea zenbat eta hobeto moldatu, exoeskeletoari laguntza(26).... emateko agintzen diote. Ibiltzeko gaitasunik ez dutenen kasuan, exoeskeletoak egiten du ahalegin ia guztia. Gailuak gorde egiten ditu saio bakoitzeko datu guztiak, gero errehabilitazio-arduradunek aztertu ahal izateko.

Saioan bertan erabakitzen dute egin beharreko lana, pazientearen(27).... arabera. Gandiagak egun on batean mila urrats egin ditzake; egun txar batean, 200 agian. «Guk(28).... behar dugu haien borondatera, ez haiek gurera; entzun egin behar diegu», azaldu du Otxoa medikuak. Etengabe hitz egiten dute elkarrekin, eta, behar izanez gero, Otxoak(29).... egiten du ariketa.

Gandiagak esklerosi anizkoitz gaixo gehienek duten arazo bat du: hanketako espastizitatea, hanketako giharren zurruntasuna. Ondorioz, aldaka eta belauna ezin ditu(30).... , eta hanka dena batera mugitzen du. Pausoa emateko aurrena hanka guztia kanpora, zapaltzeko berriro barrura.

Ibilera(31).... hori konpontzen laguntzen dio exoeskeletoak. Pausoa ondo ematera behartzen du, «ibileraren eredua normalizatzerako». Gandiaga ere(32).... da horretaz: «Pausoa hobeto ematen dut: hanka gehiago tolesten dut, belauna gehiago igotzen dut eta orkatila ere mugitu dezaket. Horrez gain, askoz ere zuzenago sentitzen naiz. Neure burua zuzen ikusten dut, tente, oreka hobetoarekin eta indartsuago».

A eredua

Exoeskeletoa erabili eta gero, bastoia gutxiago behar du edo bastoirik gabe ere moldatzen da. Mesedegarria da haren erabilera.(33).... saio bakarra bada, pare bat egun. Astean bi saio badira, «ia aste osoan ibiltzen naiz sendoago, tenteago eta konfiantza gehiagorekin».

Ibili ezin direnen kasuan, exoeskeletoak ez du lortzen berriro ibiltzea. Baina indartu egiten dizkie hankak eta enborra. Hobeto moldatzen dira zutik jartzeko eta aulki gurgildunetik beste leku batzuetara pasatzeko. Ohartarazpen bat egin du: exoeskeletoa teknologia(34).... dela eta ohiko errehabilitazioa beharrezkoa dela, pazienteak gutxieneko sendotasuna behar baitu kanpo-hezurdura erabili ahal izateko. Zutik jartzeko gai izan behar du: «Bestela, exoeskeletoan(35).... , apurtu egingo litzateke.

Jakes Goikoetxea, *Berria*, 2019ko azaroak 22 (moldatua)

Idatzi zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

11	12	13	14	15
a. jantziekin b. ibilerarekin c. aurpegiarekin d. ahotsarekin	a. bidelagun b. arerio c. etsai d. anaia	a. betea b. osatuta c. birrinduta d. zatituta	a. zaio b. zion c. du d. da	a. agerraldiak b. norabidea c. agertokiak d. sendabideak
16	17	18	19	20
a. bizkortzen b. ernegatzen c. estutzen d. eragiten	a. pozgarrienetako b. ohikoenetako c. arraroenetako d. negargarrienetako	a. arinenetan b. gehienetan c. berezienetan d. larrienetan	a. datuak b. izenak c. nahiak d. adina	a. botatzen b. erantzen c. jantzen d. itsasten
21	22	23	24	25
a. arduraren b. gailuaren c. gizonaren d. torlojuen	a. etzan b. erori c. eseri d. zutitu	a. balu b. banintz c. balitz d. banu	a. beraz b. jakina c. ordea d. behintzat	a. Aldiz b. Horregatik c. Izan ere d. Era berean
26	27	28	29	30
a. gutxiago b. handia c. gehiago d. txikia	a. nahiaren b. gorputzaldiaren c. lehentasunen d. neurriaren	a. egokitu b. desbideratu c. galdu d. askatu	a. inposatu b. zapuztu c. moldatu d. argaldu	a. lotu b. bereizi c. bihurritu d. tolestu
31	32	33	34	35
a. dotore b. egoki c. zuzen d. desegoki	a. ahaztu b. ukatu c. ohartu d. baliatu	a. Astero b. Astean c. Astetik d. Astez	a. kaskarra b. bateraezina c. funtsezkoa d. osagarria	a. jartzerakoan b. jarriz gero c. jartzearren d. jartzekotan

A eredua

AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, grabazio bat entzungo duzu: Arantzazu Muñoari egindako elkarrizketa. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu; gero, markatu zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

1. zatia

1.- Zertarako da jolasa hain garrantzitsua?

- a) Garapen osorako.
- b) Garapen fisikorako.
- c) Motrizitaterako.
- d) Emoziozko adierazpenerako.

2.- Zer eraikitzen du umeak jolasaren bidez?

- a) Bere nortasuna.
- b) Eskola eta mundua.
- c) Gauzen giltzarria.
- d) Bere ingurua.

3.- Zer murriztu diegu haurrei?

- a) Musika orduak.
- b) Goatzeko tokiak.
- c) Jolasteko denbora.
- d) Gorputz Hezkuntza.

4.- Haurrak askatasuna behar du. Zertarako?

- a) Jostailuak aukeratzeko.
- b) Erabakiak hartzeko.
- c) Dena kontrolatzeko.
- d) Loturak askatzeko.

5.- Noiz erabaki zen jolasa haurraren eskubidea dela?

- a) 1989an
- b) 1999an
- c) 1889an
- d) 1998an

2. zatia

6.- Non jolasten zen batik bat garai batean?

- a) Basoan.
- b) Plazan.
- c) Kanpoan.
- d) Etxean.

7.- Gaurko jolaslekuek zer problema dute?

- a) Ez dute problemarik.
- b) Albo-kalteak dituzte.
- c) Espazio hutsak dira.
- d) Leku mugatuak dira.

8.- Zer gertatzen da gomazko lurrekin?

- a) Ustekabeko arriskuak dituzte.
- b) Ziurragoak dira, batez bestean.
- c) Ez dira ekologikoak.
- d) Istripuak gutxitzen dituzte.

9.- Zein jostailu izan litezke egokienak?

- a) Makilak batez ere.
- b) Helduen asmakariak.
- c) Errealitateko materialak.
- d) Erratzak, kanaberak eta ezpatak.

10.- Motrizitatea lantzen denean:

- a) Jolasa garatzen da.
- b) Jolasa ez da garatzen.
- c) Burua ez da garatzen.
- d) Burua ere garatzen da.



HE1 PROBA IDATZIA ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AHOZKOAREN ULERMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

IRAKURMENA

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30

31	32	33	34	35

Idatzi zure kodea:										
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IDAZLAN LUZEA

Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 175 hitz dituen idazlana egin behar duzu.

Telelana. Azken boladan telelana gero eta gehiago erabiltzen da, baita irakaskuntzan ere. Lehendik baziren on-line ikastaroak unibertsitean, baina orain beheragoko mailetan ere ikasleek eta irakasleek konektatuta egon behar dute. Idatzi telelanaren gaineko zure iritzia eskolako web-orrian. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu irakaskuntzan telelana zer den.
- Adierazi alde onak eta eragozpenak.
- Egin zure balorazioa.

Seme-alabak, noiz arte etxean? Gure gizartean, beste herrialde batzuetan ez bezala, seme-alabak luze bizitzen dira gurasoen etxean, emantzipatu ezin direlako. Gogoeta egin horren inguruan eta idatzi artikulua eskolako web-orrian. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Aipatu gertakari horren alde onak eta txarrak.
- Azaldu zergatiak: lan falta, etxeen prezioa...
- proposatu neurriak egoera hobetzeko.

10.....

20.....

Idatzi zure kodea:										
---------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

30.....

40.....

50.....

60.....

